

ARABIA IRUDIKAPEN GARAIKIDEAK. DISKURTZO KRITIKOAK ETA PENTSAMENDU POLITIKOA

Palestina eta Irak: okupazioaren esperientzia tragikoa eta beronen ondorioak, Aboubakr Jamaik

Mendebaldeko herrialdeetan ahaztu ohi dugu Ekialde Hurbila duela oso denbora gutxi deskolonizatutako lurralde bat dela. Baina kolonizazioaren oroitzapena ez da desagertu Israel (eta orain, baita Iraken zabalduetako tropa estatubatuarrak ere) kolonia garai horren herentziatzat ikusten duten hiritar arabiarren irudi mundutik. *Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* mintegiaren bigarren jardunaldian eginiko ekarpenean zehar, Aboubakr Jamaik aztertu egin zuen Iraken inbasioaren eta arazo palestinarraren inpaktua mundu arabiarreko iritzi publikoan, eta arreta berezia eskaini zion Marokoko iritzi publikoari. "Kontuan izan behar dugu –azpimarratu zuen Aboubakr Jamaik-geografikoki urrun egon arren, iritzi publiko marokoa dela Israelen gerra ekintzen edo Iraken kontrako eraso andanaren aurka gehien mugitu denetako bat". Jamairen iritziak, gatazka biek Ekialdearen eta Mendebaldearen harreman historikoaren ezaugarri izan den borroka dinamikaren halako gaurkotze bat erakusten dute.

Azken urteotan zehar, Al-Jazeera telebista-kateari esker iritzi publiko bateratu bat sortu da mundu arabiarrean, eta iritzi hau aho bakar baten antzera agertzen da Sharonen gobernuaren ekintzak edo AEBk Ekialde Hurbilean daramaten politika direlarik gai. Lehen, bakar-bakarrik hedabide lokalak eta nazionalak zeuden, boterearen kontrolpean zeharo, eta nazioarteko gatazkei buruzko informazioetan kasuan-kasuan bere herrialdeko gobernuak eginiko balorazio diplomatikoak zabaltzera mugatzen ziren. Aldi berean, mendebaldeko hedabideek ez zuten inolako sinesgarritasunik iritzi publiko arabiarrentzat, batez ere Golkoko I. Gerrari eman zioten informazio estalduraren ostean.



Testuinguru honetan, 1996an Qatar-en satelite bidezko Al-Jazeera telebista-katea sortu zuten; hedabide panarabiarra da eta, Aboubakr Jamairen iritziak, lortu egin du "hitza arabiarra askatzea eta nazioarteko hedabideen eszenatokian hedatzea". Al-Jazeeraren eragin itzelari aurre egiteko ahaleginetan, AEBk antzeko beste hedabide batzuen sorrera sustatu dute. "Etsipenak eragindako ekintza bat da –esan zuen Aboubakr Jamaik-, propaganda estrategia iparramerikarrak herrialde arabiarretan

izan duen porrota erakusten duena". Ez dugu ahantzi behar mendebaldeko hedabideentzat, denbora askoan zehar, "iritzi publiko arabiarra" existitu ere ez dela egin. Lehen zegoen bakarra "kale arabiarra" zen, zeharo ñabarturiko esapidea berau, azaldu nahi baitzuen "*homo islamicus*" delakoaren kultur apartekotasun suerte bat; izan ere, izaki hau ez zatekeen gai bere kontura proposamen intelektual konplexurik (iritzirik) garatzeko. Hau guztia oso kodeturiko ikusizko eszenografia batez osatzen zen: "kale arabiarra" emozio espresibotasun bizi-biziko uneetan erakusten zuen (manifestazioak, zigorkatzeak, dolu adierazpenak, banderak erretzea...), musulmanen ustezko izaera irrazional eta fanatikoa azpimarratuz betiere.

Aboubakr Jamairen ustez, herri palestinarren hilzori luzearen aurrean hiritar arabiarrek sentitzen duten sumindura eta ezintasuna dira gizarte musulmanen sektore zabaletan terrorismo islamiar deituaren aurrean ikusten den "tolerantzia" erlatiboaren funtsezko arrazoa, nahiz ez den bakarra. "Eta lagungarri da, halaber – zehaztu zuen Jamaik-, AEBk eta beronen aliatuek gurutzadak edota jainko kristaua Alaren gaintik dagoela aipatzen jarraitzea, edo George Bushen Ariel Sharon "bake gizona" dela esatea, edota Saddam Hussein eta beronen semeak laidogarriki erakustea. Horri guztiari erantsi beharko litzaioke Irakeko kartzeletako torturen eskandalu berria (honetan bada agente israeldarrak tartean egon ote ziren susmoa), edo Guantnamoko presoaren egoera.

Islamismoaren sektorerik muturrekoenentzat, gertakizun hauek argi erakusten dute mundu arabiar eta musulmanaren aurkako konspirazio mendebaldar bat dagoela, eta honetan buru, berriz AEBak daudela, NBE bezalako nazioarteko erakundeen babesean. Sektore hauen ikuspegitik, nazioarteko egoera politikoak erakusten du azken urteotan zehar gobernu arabiarrek izan dituzten jarrera moderatuek ez dutela atarramentu onik ekarri. "Mendebaldearekin ezin da negoziatu –diote-, aukera bakarra borroka armatua da". Era berean, gobernu eta segurtasun indar arabiarretako agente kontserbadoreen eta autoritarioenen tesi zapaltzaileak indartzen ari dira etengabe. Hauen argudioa eskematiko bezain eraginkorra da: AEBak bezalako potentzia global batek tortura eta legez kanpoko jarduna baliatu behar izan baditu terrorismoaren aurka borrokatzeko eta bere hiritarrak babesteko, nolatan ez dute bada bide bera jorratuko gobernu arabiarretako zerbitzu sekretuek, askoz baliabide urriagoak dituztela?



Dorre Bikien aurkako atentatuen ostean, hainbat estatistika institutuk eta nazioarteko erakundek iritzi ikerketa batzuk egin dituzte, herrialde arabiarretako iritzi publikoaren bilakaera aztertzeko eta Mendebaldeari eta demokraziari buruz duten pertzepzioa zein den jakiteko. Testuinguru honetan kokatu behar dira New

Yorkeko *The Pew Research Center* fundazioak egin eta 2003ko ekainean eta 2004ko maiatzean argitara emandako bi inkesta. Berrienean, soldadu israeldarren aurkako atentatuek justifikaziorik ba ote zuten galdetuta, inkesta egindako marokoarretatik %74k eta jordaniarretatik %80k baietz erantzun zuen. Kopuru hau txikixeagoa zen hiritar mendebaldar eta estatubatuarren aurka Iraken izandako erasoei buruzko balorazioa eskatzen zitzairenean (marokoarretatik %66k eta jordaniarretatik %70ek justifikatzen zituzten).

The Pew Research Center-en inkestak, halaber, eskatzen ziren nazioarteko terrorismoaren aurka borrokatzeko martxan jartzen ari ziren ekintzak baloratzea. Marokoarretatik %28 zen, soilik, aldeko; ehuneko baxua zen baina, hala eta guztiz, 2003ko inkestan egin antzeko galdera bati baietz erantzundako %9a baino dezente handiagoa ("45 pertsona hil zituzten Casablancako atentatuen aurretik egin zen hura", gogoratu zuen Aboubakr Jamaik). 2003ko inkesta horren emaitzen arabera, juduak ziren marokoarrei errefusik handiena eragiten zietenak (%92), kristauak hurrena (%75), eta estatubatuarrek ondoren (%68). Irakeko gerra eragin zuten arrazoiei dagokienez, marokoarretatik %62k eta jordaniarretatik %71k petrolioia izan zela erantzun zuten; are gehiago, partaideen portzentaje handi batek ziurtatu zuen Israelek Ekialde Hurbilean duen posizioa sendotzea zela helburua. Ben Ladenen irudia baloratzea ere eskatzen zieten inkestatuei.

Emaitzak deigarri samarrak izan ziren: marokoarretatik %45ek Al-Quedaren liderrari buruzko aldeko iritzia zuen.

2003an zehar hainbat herrialde arabiarretan aldi berean eginiko beste inkesta batean, galdera zen zein ote zen nazioarteko arazoak konpontzeko liderrik gaituena. Lehenago emana zuten bederatzi izeneko zerrenda bat, tartean zirela, besteak beste, Ben Laden, George Bush, Tony Blair, Jacques Chirac eta Kofi Annan. Baloraziorik handiena Chiracek lortu zuen ("seguruenik Iraken inbasioaren aurka agertu zelako", zioen Aboubakr Jamaik), baina Ben Ladenek oso boto kopuru altua bildu zuen, esate baterako Maroko eta Pakistanen. Aboubakr Jamaik dioenez, azterketa horietako datuek –zehatz-mehatz aztertu dituzte, osterantzean, berak zuzentzen dituen *Le Journal Hebdomadaire* eta *Assahifa al Ousbouiya* kazetaritzako argitalpenetan- egiaztatzen dute nazioarteko egoerak (Ekialde Hurbilekoak bereziki) erraztu egiten duela jarrera islamistatik muturrekoenek irautea, are hedatzea ere.

Aboubakr Jamairen iritziz, inkesta hauetako emaitzak oso-oso argigarriak dira, batez ere Mendebaldearen barnean Estatu Batuen eta Europaren artean dagoen haustura dokumentatzen duten beste azterketa estatistiko batzuekin alderatuz gero. Ildo honetatik, *The Pew Research Center* fundazioak 2003an txosten bat argitaratu zuen, bertan ziurtatuz europarrek gai erlijiosoetan erakusten duten eszeptizismoaren aurrean, iparramerikarretatik %85ek dioela erlijioa oso garrantzitsua zaiela bizitzan, eta %60k aitortzen du mezarara gutxienez hilean behin joaten dela. *The Economist*-ek, ostean, inkesta bat argitaratu du, eta bertan dio estatubatuarretatik %44k uste duela jainkoaren nahia dela Israel juduena izatea; %36k, berriz, uste du Ariel Sharon presidente duen herrialdea Jerusalem berri baten profetia biblikoaren gauzatzea dela. "Hau da –egin zuen ohar Aboubakr Jamaik-, fundamentalismo erlijioso ez da mundu arabiarren gauza eskusiboa bat".

Baina erlijioa baloratzeko unean europarren eta estatubatuarren artean dauden desberdintasunetatik haratago helduz, ezin ukatu dugu sentimendu islamofobikoak "kontinente zaharrean zehar" ere barreiatzen ari direla, erlijio aniztasunaren inguruan tolerantziarik handiena erakutsi ohi duen herrialdeetako batera ere, Frantziara alegia, iritsiz. Islamofobia sotila da (esplizitua bezain arriskutsua ordea, edo okerragoa), eta meskitak elizei eta sinagogei ematen zaizkien dirulaguntza estatal batzuetatik kanpo uztean islatzen da, edota, era berean, eskola publikoetan

beloa erabiltzea galarazten duen legearen onarpenean (gurutzefikak eramatea, aldiz, onartzen du legeak).

Datu estatistikoei buruzko azterketa zorrotzari jarraiki, duela gutxi Saudi Arabia, Maroko, Jordania, Kuwait, Egipto eta Israelen egindako inkesta bat aipatu zuen Aboubakr Jamaik; inkesta honen asmoa gizarte arabiar garaikideetan sustraituen dauden balio moral, politiko, sozial eta kulturalak zein diren jakitea eta horiek analizatzea zen. Nortasun adierazgarri nagusitzat, inkestatutako gehienek erlijioa aukeratu zuten (hurrena zetorren nortasun "arabiarra"), eta gehien kezkatzen zituen gai politikoa palestinarren eta israeldarren arteko gatazka zela adierazi zuten (marokoarrek eta saudiarrek batik bat); dena den, kasuan kasuko herrialdean giza eskubideen egoerak ere interes handia eragiten zien. Gainera, mendebaldekoen estiloko demokraziak beren gizarteetan funtziona ote dezakeen galdetu zitzaielarik, kuwaitarretatik %80k eta marokoarretatik %63k baietz erantzun zuten. "Badirudi inkesta honetako datuak –esan zuen Aboubakr Jamaik- ez datozela bat musulmanak, izatez, giza eskubideak errespetatzea axola ez zaien eta demokraziaren etsai ditugun integrista fanatikoak direla dioen ikuspegi kulturalista eta esentzialistarekin".



Ildo honetatik, Aboubakr Jamaik uste du Bush administrazioaren "neocon" horiek, nahi gabe, eragin duten ondorio positiboetako bat azken urteotan zehar mundu arabiarari buruz egindako analisietako asko eta askoren ezaugarri izan den "kultur erlatibismoa erlatibizatzea" izan dela. Erlatibismo horrek, izan ere, planteatu izan du demokrazia ez dela bateragarria herrialde arabiarretako nortasun edo identitate soziokulturalarekin. Alabaina, Aboubakr Jamaik uste du egiaz badela, gizarte hauen barnean, benetako prozesu demokratiko bat abiaraztearren borrokan ari den indarrik. "Marokon, esate baterako –azpimarratu zuen Aboubakr Jamaik-, gizarte zibila gai da, erabat, demokrazia bere ondorio guztiekin bere egiteko, nahiz elite politiko marokoarrak eta mendebaldeko hainbat intelektual taldek zeharo bestelako iritzi batzuetara eraman nahi gaituzten".

Bultzada eta oztopo faktoreak Marokoko trantsizio demokratikoaren prozesuan

Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa egitarauak goizetako hainbat eztabaida saio jasotzen zituen; hauek bakar-bakarrik mintegian izen emandako pertsonentzat ziren. Saio hauetako batean, Aboubakr Jamaik aztertu egin zituen Marokoko trantsizio demokratikoaren prozesuan diren bultzada eta oztopo faktoreak. Ildo honetatik, Aboubakr Jamairen iritziz –2003an Kazetarien Babeserako Komiteak, New Yorkekoak, Prentsa Askatasunaren Nazioarteko Saria eman zion Jamairi- Marokoko azken aldiko historian funtsezko hiru data ditugu: 1972, 1983 eta 1995/96.

1972an estatu kolpe ahalegin bat izan zen; honetan, ustez, garai hartako Marokoko ezkerrearen buruzagirik nagusienak sartuta egon ziren. Ofizialki Hassan II.ak sekula ez zien kolpea galarazi; oso bestela, elkarri ez erasotzeko itun inplizitu suerte bat egin zuen, eta honek bere erregealdi osorako egonkortasun politikoa bermatuko zion. Horrela, errege alautarrak aliantza hau baliatu du, trukerako, hainbat gai arazotsu eta kezkgarriren aurrean (esate baterako, Ben Barkaren hilketari buruzko ikerketen garaian), edo babes ezkerreko gisa beste mugimendu politiko eta sozial batzuen erasoaren aurrean. “1972ko kolpe zapuztu hartan ezkerreko buruzagien partaidetza ezkerretatik honek –esan zuen Aboubakr Jamaik- geroago Marokon gertatu den eta, lehen ikusi batean, inolako logikarik ez zuen gauza asko eta asko ulertzeko giltza eman digu”.

Urte horretan bertan, Marokoren geroko bilakaeran funtsezko gertatu diren hiru erabaki hartu zituen Hassan II.ak: ikasle kopurua areagotu zuen, lanbide-arteak gutxieneko soldata igo zuen, eta “lurralde marokoartzeko” kanpaina bat abiatu zuen (bakar-bakarrik militar eta enpresari elite batzuen onerako izan zen), atzerriko enpresen eskutan zeuden lurak Marokoari itzultzea exijituz. Saudi Arabiaren eta Kuwaiten *petrodolarren* laguntza finantzarioari esker, Hassan II.ak “gizarte bake” ahul baina eraginkor bat ezartzea lortu zuen; “bake” hau, dena den, desagertu egin zen 1983an, sarrera iturri hori nabarmen murriztu zenean.

Une horretan, errege marokoarrak burgesia txiki ekintzaile baten sorrera bultzatu nahi izan zuen, herrialdeari beste bide bat eman ahal izateko. Baina klase ekintzaile horrek bere eginkizuna bete ahal izan zezan, esparru juridiko eta politiko egonkor eta garden samar bat behar izan zuen. Eta, Aboubakr Jamairen iritziz, horrelakorik sekula ez da lortu Marokon.

1995eko urrian, Hassan II.ak –ordurako bazekien gaitz larri batek jota zegoela- Mundu Bankuaren txosten bat eman zuen argitara; honek zioenaren arabera, Marokoko ekonomia aurrera ez egitearen arrazoia Barne Ministerioan eta Ogasunekoan zegoen ustelkeria zen. Adierazpen horien bidez, Hassan II.a zuzenean ari zitzaizen bertako hainbat enpresari garrantzitsuri leporatzen zergak ez ordaintzea. Izan ere, enpresari horietako asko kartzelatu eta torturatu zituzten (60 eta 70eko urteetan ezkerreko matxinatu batzuei egin bezalaxe) eta orduaz geroztik, Marokoko klase ekonomiko aktiboek nahiago izan du bigarren maila batean geratu.

Bere erregealdiko lau hamarkadetan zehar, Hassan II.ak, buruzagi trebe eta pragmatikoa bera, aurkaritza politikoen zati handi bat usteltzea lortu zuen (obedientzia eta isiltasunak erositik); horrenbestez, aurkaritza politiko horrek galdu egin zuen gobernurako aukera erreal gisako sinesgarritasun guztia. Eta halaz bultzatu egin zen islamismo politikoen finkatze eta hedatzea. Marokoko kasuan ez

da mugimendu homogeen eta berezi gabea, baizik eta joera eta sentsibilitate ugari biltzen dituen (eta ez dira guztiak modernotasunaren eta demokraziaren etsai).

Maila orokorrean, gaur egun bi korrante islamista nagusi aipa ditzakegu: sustrai sufiak dituen mugimendu politiko bat (honetan sartuko litzateke *Justizia eta izpiritualtasuna*), izugarrizko gizarte ezarpena duena; eta PJD (*Justiziaren eta Garapenaren Alderdia*) alderdiaren inguruan egituratutako elkarte sorta bat, erreferentziako eredu gisa Turkiako AKP eta ez-eredu gisa Aljeriako FIS duen mugimendu politiko islamista bera. PJDk 42 diputatu lortu zituen azken hauteskundeetan (ordura arteko ordezkaritza hirukoiztu zuen), eta 2003ko udal hauteskundeetan ere emaitza bikainak eskuratu zituen, nahiz hauteskunde-barruetatik %20 baino gutxiagotan izan zuen aurkezteko aukera (herritarren babes handiena duten herrietako asko eta askotan ez zuten aurkezterik izan).

ARGIBIDE GEHIAGO: <http://www.unia.es/artpen/mundo/mundo01/frame02.html>